

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Bruselako atentatuak "gogor" gaitzetsi ditu eta biktimekiko bere elkartasuna erakutsi du

Herritarrei deia luzatu die bihar, 12:00etan, Nafarroako Jauregiko Karlos III.aren fatxada parean deitutako elkarretaratzean parte har dezaten

Martes, 22 de marzo de 2016

Nafarroako Gobernuak adierazpen instituzional bat egin du eta, haren bidez, gaur goizean Bruselan izandako atentatu terroristak "gogor" salatu eta gaitzetsi ditu; biktima, haien senide eta hurbilekoekiko bere elkartasuna erakutsi die, halaber.

Gainera, Nafarroako herritarrei deia luzatu die martxoaren 23an, 12:00etan, antolatu den elkarretaratzean parte har dezaten; Nafarroako Jauregiko fatxadaren aurrean egingo da, Iruñeko Karlos III.a etorbidean.

Albistea jakin ondoren, Foru Gobernuak, Bruselako Ordezkaritzaren bulegoaren bidez, Belgikako hiriburuko nafarrekin harremanetan jarri da, zer egoeratan dauden jakiteko. Ordezkaritza etengabe harremanetan dago Bruselan egoitza duten autonomia erkidego guztietako beste ordezkartzeekin.

Gainera, Nafarroako Gobernuak doluminak bidali dizkie Belgikako Erreinuak Madrilen duen enbaxadore Pierre Labouverie-eri, eta Bilboko ohorezko kontsul Sylvie Lagneaux Bonelli-ri, Nafarroarako eskumena duenari.

Adierazpen instituzionalaren edukia

Adierazpen instituzionalaren edukia honako hau da:

"Bruselan gaur goizean gertatutako atentatu basatiaren aurrean, Gobernu honek, bere izenean eta ordezkartzen duen herritarren izenean, lehenik eta behin, biktima, haien senide eta hurbilekiko elkartasuna erakutsi nahi die, bizitzen ari diren une ikaragarri hauetan. Bigarrenik, Gobernu honek konpondu ezinezko kaltea eragiten duen atentatu hau gogor salatu eta gaitzesten du; inolako errurik gabeko pertsonak hil dira bertan, eta ehunka zauritu eragin. Atentatu hori, gainera, Europako bihotza izan du jomuga, eta bake, errespetu eta demokraziaren balioak babesten dituztenen artean izua sortzea izan du xede.



Karlos III.aren fatxadaren irudia; bertan egingo da elkarretaratzea.

Terrorismoa erabat bidegabea eta demokraziaren aurkakoa dela azpimarratu nahi dugu sortzen duen min eta sufrimenduagatik, eta giza duintasun nahiz pertsonen eskubideen gainetik helburu edo ideia bat jartzen duelako. Terrorismoa indarkeria eta inposiziorako baliabidea da, eta eskubideen urraketa bat bake, bizikidetzaz, elkarrizketa, errespetu eta herritarren defentsaren aurrean.

Gobernu honek behin baino gehiagotan errepikatu du borondate argia duela desberdin pentsatu, uste eta bizitzen direnen artean errespetua eta bizikidetzaz sustatuz lan egiteko; izan ere, demokrazian sakonduta lortuko dugu gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzea, eta bertan indarkeriak ez du inolako legitimitaterik izango.

Amaitzeko, Foru Gobernuak Nafarroako herritarrei dei egiten die martxoaren 23an, 12:00etan, antolatu den elkarretaratzean parte har dezaten; Nafarroako Jauregiko fatxadaren aurrean egingo da, Iruñeko Karlos III.a etorbidean.